

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Gero berokoak

LANDAREEN KLOROFILA egokitu eta berdetzen diren itsas bareen ildotik, behiak ez baina geu bai, geu adinarekin berdetzen garela gogorarazi dit lagun batek. Heldu beharko genukeen, zahartu eta berdetu? Urdindu behar eta berdetu, gordindu? Ihartzen eta berdetzen, hezetzen? Lizunkeria berdeak utzitakoa, bai, lizunak berdetzen duela, dio berak... Zurbiltzen bai, nik. Zurbiltzen, giblekoak aurpegia horitzen duenean bezala. Hori da, nik horitu esango nukeenean berak berdetu. Berdoztu esan beharko ote nuke? Masailak gorrien eta gogoaz lizunen nituen garaietan Berdosta izena zuen etxe batean bizitua naiz. Zuldarra nagusi zen garai gogoangarrian... Zuldarrak amaitzen direnean bizitza bukatzen dela uste duten horietakoa naiz ni. Gero berokoak, beroarenak kendu behar beti. Beti.

Heze, lizun, gordin, lerdin, berde bizitzen den garaietako zuldarraren pikorta azalean azaleratuz azaltzen denean, nola-hala kendu arteko bakerik ez da izaten. Berdan-belarra ezagutu arte. Berdanak, zuldarra sendatzeko artea baitu. Berdan-belarra, berbena, *Verbena officinalis*, garbitzaile aparta da. Paderan berotu, oilo-arrautza zuringoarekin tortilla egin eta mantarrean bilduta, txaplata bero-beroa, azalean ipintzen da. Eta jartzen den tokian jartzen dela gorputz alde horri garbitu ederra emango dio, sakon asko. Sinusitisa arintzeko, birika eta bronkiotako karkaxak libratu eta botatzeko, baita azalpea zoltzean



BLUEHAZYJUNEM



NOVA

Berdan-belarra (goian), zuldarra sendatzeko aparta. Zoldar-belarra (behean), berriz, hobe omen zoldutako zaurientzat.


tontortutako zoldar pikortak errotik kentzeko ere. Zoltzearentzat, ordea, hobeak omen dira zolda-belarra (*Symphytum officinale*) eta zolda-belar txikia (*Symphytum tuberosum*). Zoldutakoak bezala, zoldu aurretik zauriak gozo orbaintzeko ere aukerakoak. Berbena eta hirurak azalerako belarrak dira, zein baino zein indartsuago eta soinaren barrura ez sartzeko adina toxiko. Ez edan, beraz, haren urik! Ahuldade bikaina harrapatua du nik dakidan batek...

Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba, 2.214 zenbakiko *Erlikiaz erlikia* artikuluan *Lycium europeum* landarearen euskal izena hesilaharra dela diozu. Beste toki askotan, ordea, hesilaharra deitzen diote *Rhamnus cathartica*-ri, hau da, gaztelaniaz *espino cerval* deritzonari. Bi landareek izen bera ote dute? Hemen, Gipuzkoan, ba al dago *Lycium*-ik?

Jabier Diaz (Ikaztegieta).

Iepa Jabier. Hesilaharra izena dela-eta, beste izen ugariarekin gertatzen den bera azaltzen duzu, ederk asko. Izen bat esan eta landare asko izan. Hori txarra edo ona den ez dut iritzi garbirik. Aberastasuna eta landareekiko gertuko hartu eta emana, baina baita nahasmendua ere, ageri da jokabide horretan. Gipuzkoan *Lycium* generoko landaririk baden ez dakit. Ea gure irakurleetakoren batek badakien eta esaten digun...



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
Inausketa lanak: landareak hazteko, mantentzeko eta berritzeko
Barrualdeak lorategi bihurtzea

Luberri Basolanak, S.L. • Axpe ibaiarta 28, beheko solairua, B12 lokala
Erandio (Bizkaia) • Mugikorra: 629 41 18 38 • Tel.: 944 671 713 • Faxa: 944 674 241
luberri@luberri.biz • www.luberri.biz